# EKINAREN ASTEA 2025

maiatzak 19-25 de mayo




aztertu

ingurumen hezkuntza
Herritarrentzako ingurumen hezkuntza
Educación ambiental para la ciudadanía

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD





# ZER DA
# EKINAREN ASTEA?

IEKINAREN ASTEA maiatzaren 22a, Aniztasun Biologikoaren Nazioarteko Eguna, jausten den astean ospatzen da. Egun horretan bertan, Aztertu programak EKINAREN EGUNA ospatzen du, ingurumenaren aldeko jarduera bat garatuz talde konkretu batekin.

Ekimena 2012an sortu zen eta harrezkero urtez urte ospatuz joan da. Komunitate osoa ingurumenaren aldeko ekintzen garapenean aktiboki inplikatzeko asmoz sortu zen. Azken finean eta izenak adierazten duen bezala, "ekinean jartzea" da asmoa, Aztertu Programaren ohiko analisi eta laginketetatik haratago.

Era guztietako taldeek parte hartu ahal izateko (ikastetxeak, elkarteak, udal-taldeak, familiak, etab.), ASTEBETEKO EPEA ematen da, eta, epe horretan, jarduerak egin beharko dira. Kasu honetan, 2025eko maiatzaren 19tik 25era.

# ¿QUÉ ES
# EKINAREN ASTEA?

*EKINAREN ASTEA se celebra siempre la semana en la que cae el 22 de mayo, Día Internacional de la Diversidad Biológica. Ese mismo día, el Programa Aztertu celebra el EKINAREN EGUNA, desarrollando una actividad en favor del medio ambiente con un grupo concreto.*

*La iniciativa nace en 2012 y desde entonces se celebra año tras año. Se creó con la pretensión de involucrar a toda la comunidad de manera activa en el desarrollo de acciones en favor del medio ambiente. En definitiva, y como el nombre indica "ponernos en acción", más allá de los análisis y los muestreos habituales del Programa Aztertu.*

*Para que todo tipo de grupos puedan participar (centros escolares, asociaciones, colectivos municipales, familias, etc) se da UNA SEMANA de plazo, durante la cual se deberán llevar a cabo las actividades. En este caso, del 19 al 25 de mayo de 2025.*

# PARTE-HARTZAILEEN AURKIBIDEA
## ÍNDICE DE PARTICIPANTES


- ZABALEKO IKASTETXEA
- IPARRAGIRRE KASTOLA
- LAURO IKASTOLA
- OTXARKOAGA IKASTETXEA
- URRETXU ZUMARRAGA IKASTOLA


*egin KliK ekintza bakoitzaren gainean*
*haz Clic sobre cada actividad*



## ZUHAITZAK LANDATUZ ETORKIZUNA HAZTEN!

Eskolako 3. zikloko ikasleek ekintza berezi eta jasangarri bat burutu dute: lau zuhaitz landatu dituzte eskolako ortuan! Ekimena ezin hobea izan da ingurumenarekiko konpromisoa lantzeko eta ikasleengan naturarekiko zaintza eta ardura sustatzeko.

## PLANTANDO ÁRBOLES ¡CRECIENDO EL FUTURO!

*El alumnado de 3º ciclo del colegio han llevado a cabo una acción especial y sostenible: ¡han plantado cuatro árboles en la huerta escolar!*
*La iniciativa ha sido perfecta para trabajar el compromiso con el medio ambiente y fomentar en el alumnado el cuidado y la responsabilidad con la naturaleza.*

# ZABALEKO IKASTETXEA

## AMURRIO

ARABA

INFORMEA

INFORME

ARGAZKIAK

FOTOS

HASIERA-INICIO



# IPARRAGIRRE IKASTOLA

## BILBAO

BIZKAIA

BIDEOA

VIDEO

## TXIKIAK MARTXAN: ETXEBARRIA PARKEA GARBITZEN

4 urteko txikiek planeta zaintzeko adinik ez dagoela erakutsi dute Etxebarria parkean garbiketa jardunaldi bat eginez. Poltsak, eskularruak eta laguntzeko gogo handia izan ziren jarduera honen protagonistak, non gure ingurunea errespetatzearen eta babestearen garrantzia ikasi zuten, jolastuz.

Esperientzia dibertigarria, hezitzailea eta balorez betea, arrastoa uzten duena.

## PEQUES EN ACCIÓN: LIMPIANDO EL PARQUE ETXEBARRIA

*Los peques de 4 años han demostrado que no hay edad para cuidar el planeta realizando una jornada de limpieza en el parque Etxebarria. Bolsas, guantes y muchas ganas de ayudar fueron los protagonistas de una actividad en la que aprendieron, jugando, la importancia de respetar y proteger nuestro entorno.*

*Una experiencia divertida, educativa y llena de valores que deja huella.*

HASIERA-INICIO




# LAURO IKASTOLA

## LOIU

BIZKAIA

INFORMEA

INFORME

BIDEOA

VIDEO

## IKASLEAK BUSTI EGITEN DIRA PLANETAREN ALDE!

Ikastolako 2030 Agendaren ordezkari ziren ikasleak ingurunera atera ziren hondakinak bildu eta sailkatzeko. Ekimen hau ikasleek sortu zuten 2021ean, larrialdi klimatikoari aurre egiteko, eta inoiz baino biziago jarraitzen du.
Aste osoan zehar, haur hezkuntzako ikasleek ere bat egin zuten kausarekin, planeta zaintzea guztion kontua dela argi utziz.
Keinu txiki bat, inpaktu handi bat!

## ¡EL ALUMNADO SE MOJA POR EL PLANETA!

*El alumnado representante de la Agenda 2030 de la Ikastola Lauro salieron al entorno para recoger y clasificar residuos. Esta iniciativa, creada por estudiantes en 2021 para combatir la emergencia climática, sigue más viva que nunca.*
*Durante toda la semana, el alumnado de infantil también se unió a la causa, dejando claro que cuidar el planeta es cosa de todos.*
*¡Un pequeño gesto, un gran impacto!*

HASIERA-INICIO



# OTXARKOAGA IKASTETXEA

## BILBO

BIZKAIA

INFORMEA

INFORME

## HIRU BATEAN!

Otxarkoaga Heziketa Zentroko ikasleok *Ocean Cleaning* jarduera dibertigarria egin zuten. Abrako kostaldeko hondakinak bildu zituzten kayakean ibiltzen ziren bitartean. Esperientzia honekin, parte-hartzaileek gure kostaldeko atal hau hobeto ezagutzeaz gain, egun batez euren uren kalitatea behatzeko zientzialari bilakatu ziren. Hori gutxi balitz, ekintza horri esker *Eskola Urdina* izendapena lortu zuten ikastetxearentzat.
Egun paregabea gure lagunentzako!

## ¡TRES EN UNO!

*El alumnado del Centro de Formación Otxarkoaga realizaron la divertida actividad Ocean Cleaning, que consistió en recoger residuos del Abra, mientras la recorrían en kayak. Con esta experiencia, no solo pudieron conocer mejor esta sección de nuestra costa, sino que por un día fueron científicos y científicas para observar la calidad de sus aguas. Por si esto fuera poco, gracias a esta acción lograron el distintivo de Escuela Azul para el Centro.*
*¡Un día completo para nuestros/as amigos/as!*

HASIERA-INICIO



# URRETXU ZUMARRAGA IKASTOLA

## URRETXU - ZUMARRAGA

GIPUZKOA




## KONTZIENTZIAZIO ERALDATZAILEA

Urretxu Zumarraga ikastolak 5 proposamen abiarazi ditu: **@2rziklatuz proiektua,** ingurumenari lotutako instagram kontua; **Plastikoen kutsadura,** gazteok gastatzen duten plastikoen murala; ura eta arroparen **Gehiegizko kontsumoa**ri buzuko galdetegia; “**Adimen artifiziala eta egarri erreala”** kontzientziazio kanpaina; **Plastikoaren kutsadurak ingurunea hiltzen du** kontzientziazio kanpaina eta azkenik, kamiseta zaharrekin egindako ***Tote bag***-ak***.*** ***Lan bikaina! Zorionak!***

## CONCIENCIACIÓN TRANSFORMADORA

*La Ikastola Urretxu Zumarraga ha presentado 5 iniciativas: **@2rziklatuz proiektua,** cuenta de instagram sobre el medio ambiente; **Plastikoen kutsadura,** mural mostrando el plástico que consumen los/as jóvenes**; Gehiegizko kontsumoa,** cuestionario sobre el consumo de agua y ropa; campaña de concienciación **“Adimen artifiziala eta egarri erreala”,** campaña de concienciación sobre uso de plástico**, Plastikoaren kutsadurak ingurunea hiltzen du** y finalmente, confección de **Tote bag**s a partir de camisetas viejas. ¡Buen trabajo! Zorionak!*

HASIERA-INICIO

aztertu

747 42 99 33

aztertu@euskadi.eus

euskadi.eus/aztertu

ingurumen hezkuntza

Herritarrentzako ingurumen hezkuntza
Educación ambiental para la ciudadanía

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD